

LAN MONOGRAFIKOA

EUSKARA ADMINISTRAZIOAN

Jarraian datorren testua idazteko Eusko Jaurlaritzak 2008ko urtarrilean egindako balorazioan oinarritu naiz, zeinak euskararen normalkuntza administrazio publikoan aztertzen duen. Horrekin batera nire iritzia ematen saiatu naiz.

Hasteko, Euskal Administrazio Publikoetan euskararen normalkuntza aurrera eramaten duten “Euskararen Erabileraren Normalkuntzarako Planak” aipatuko ditut.

Jarraitzeko, administrazioan euskararen erabilera bi multzotan bereiziko dut:

- Euskararen erabilera subjektiboa: Honen barne administrazioko langileen hizkuntza eta agintari politikoen euskara maila aztertuko ditut.
- Euskaren erabilera objektiboa: Honen barne administrazioak bere lan tresnetan (lege testuak, errotuluak, argitalpen zerbitzua, ...) erabiltzen duen euskara aztertuko dut.

Azkenik, administrazioaren kanpoko hizkuntza eskariari egingo diot erreferentzia.

1. EUSKARAREN ERABILERAREN PLANAK.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio publikoetan euskararen erabileraren normalkuntza prozesua arautzen du. Dekretu horren arabera Euskal Administrazio Publikoen normalkuntza aurrera eramateko “**Euskararen Erabileraren Normalkuntzarako Planak**” erabiliko dira erakunde bakoitzean.

Ia administrazioen erdiak euskararen erabilpenerako plan bat du zehaztuta. Planik zehazturik ez dutenen artean askok, era batera edo bestera, euskara sustatzeko neurriak hartu dituzte, nahiz eta neurri hauek plan baten barne egituratuak ez egon. Gipuzkoako tamaina handieneko udaletxeak dira euskararen erabilpenerako plan gehien zehaztu dituztenak. Udaletxe txikietan ez dituzte baliabiderik plan hauek diseinatzeko, eta batez ere, aurrera eramateko.

Egoera desberdina da administrazio motaren arabera. Hona hemen **plana zehaztuta eta onartuta** dutenen zerrenda:

- Gutxi gora behera **udaletxeen erdiak**.
- **Mankomunitateen** kasuan ehunekoa **%30**era jaisten da.
- **Hiru diputazioek** dituzte haien euskararen erabilpenerako planak zehaztuta,
- eta **Batzar Orokorren** kasuan **soilik Gipuzkoak** du berea onartua.

Nahiz eta euskararen erabilerarako **planak** martxan jarri diren, haien **jarraipena** ez da beti berdina izan:

- Plan bat duten administrazioen erdiak horren jarraipen bat egin dute, baina ez da hala izan herri txikietan, zeintzuek jarraipena egiteko baliabide falta dutela adierazi dute.
- Foru diputazioetan eta Batzar Nagusietan planaren jarraipena egiten da,
- baina udaletxeei dagokienez soilik %45ak egiten du,
- eta mankomunitateei buruz hitz egin ez gero soilik %10ak.

Hortaz, nahiz eta zailena eginda egon, esfortzua ez da errentagarri bihurtu kasu guztietan.

Planik gabeko administrazio gehienak udaletxe txikiak dira, baliabide gutxirekin, baina kasu gehienetan jada euskaraz jarduten dute, batez ere, ahoz. Ondorioz, orokorrean euskararen erabilerarako planek harrera ona izan dutela esan daiteke.

Aipatu beharra dago gehienek azken 5-10 urteotan zehaztu dituztela haien planak, eta nahiz eta lan asko egiteke dagoen garapena handia izan dela.

◇ Jarraian **Bilboko Udalak** 2006-2008 epealdirako prestatu zuen **Euskara Eraberritzeko Plana** zertan datzan azaltzen duen web orria atxikitzen dut:

<http://www.bilbaoeuskaraz.com/fitxategiak/dokumentuak/testuak/0100102-2.pdf>

Hainbat ataletan lortu nahi du plan honek Euskararen eraberritzea. Guri kasu honetan interesatzen zaiguna 2. Helburuko a) atala da: Udal administrazioa: Bilboko Udalean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Bertan ikus daitekeenez Bilboko Udalean Harreman Hizkuntzak, Lan Hizkuntzak eta kontratazioak landu gabeko programak dira. Garrantzitsua iruditzen zait zera azpimarratzea: Bilboko Udalak ez du herritarrekin edo beste administrazio publikoekin harremanak edukitzeko dokumentazio guztia normalizatzeko planik aurreikusita.

◦ **EUSKARAREN ERABILPENERAKO PLANIK GABEKO ADMINISTRAZIOAK.**

Udaletxeen %45ak ez du euskararen erabilpenerako planik, baina %24a hura zehazten saiatu da. Horiek zehazteko saiakerek fruituak eman ez izanaren arrazoiaren artean honakoak daude: beste lehentasun batzuk izatea eta plan baten beharrik ikusi ez izatea.

Plan bat zehazten saiatu ez diren udaletxeen artean (%53a), jada euskaraz lan egiten dutela argudiatu dute. Eta plan bat zehazten saiatu ez direnen %22ak hura epe laburrean zehazteko intentzioa dutela adierazi dute.

2. EUSKARAREN ERABILERA SUBJEKTIBOA:

◦ HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN EGIAZTATZEEN EHUNEKOA.

Hizkuntza-eskakizunen egiaztatze maila altua da Eusko Jaurlaritzak egindako inkestak agerian utzi dituen datuen arabera. Izan ere, plazak betetzen dituzten langileek plaza horiek eskatzen duten hizkuntza maila dute, edo goragoko bat. Plazen titularren %55,58ak eskatutako hizkuntza maila dute (edo goragoko bat), eta %5,69ak beheragoko maila bat dute. Soilik %5,64ak ez du eskatutako hizkuntza mailarik.

Gainera, administrazio publiko guztietako langileak kontuan hartzen badira (eskatutako hizkuntza maila duten edo ez albo batera utzita) euskararen ezagutza maila altua da: ia %58ak hizkuntza eskakizunen bat du. Beraz emaitzak positiboak dira.

Hala ere, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeak ez du hizkuntza horren erabilera bermatzen. Erabilera faltak lortutako hizkuntza maila mantentzea zailten du, eta horrek administrazioengan eragiten du haien euskara planak ezartzerako orduan.

Positiboa da Eusko Jaurlaritzaren balorazioa, hala ere %58ak hizkuntza eskakizunen bat izatea ez zait asko iruditzen, ehuneko hori igo beharko litzatekeela deritzot. Hala eta guztiz ere garrantzitsuena ez da postu gehienetan euskara eskakizuna izatea; baizik eta dakitenek hura erabiltzea, eta horrela duten maila mantentzea.

◦ AGINTARI POLITIKOEN EUSKARA MAILA.

Agintari politikoen euskara maila, orokorrean ona dela egiaztatu da. Agintarien erdiak adierazi du euskaraz idazteko, irakurtzeko, ulertzeko eta hitz egiteko gai dela. Hala ere, balorazio hauek haien irizpen pertsonaletan oinarritzen dira. Mankomunitateetan, udaletxeetan eta Eusko Jaurlaritzan ematen da euskara mailarik altuena. Udaletxeen kasuan desberdintasunak daude errealitate soziolinguistikoaren eta biztanleriaren arabera; badirudi agintari politikoen euskararen ezagupena bere inguruneari lotuta dagoela. Hortaz, euskararen jakintzarik nagusiena Gipuzkoan ematen da, udaletxe txikietan, non egoera soziolinguistikoa euskararekin onuragarriagoa den.

Ezinbestekoa deritzot agintari politikoek euskara maila ona izatea, izan ere horrek eragin handia izan dezake administrazioan. Agintariak euskara menperatzen badute, ez dute beldurrik izango haien egitasmoak euskaraz aurrera eramateko. Euskaraz pentsatu, sortu eta aurrera eramango dira hala egitasmoak, gaztelaniatik euskarara itzultzea beharrezkoa izan gabe. Gainera horrela agintariak euskarak administrazioan dituen hutsune edo gabeziez hobeto ohartuko direla pentsatzen dut, gabezi eta hutsune horiek konpontzeko baliabide egokiagoak planteatuz.

3. EUSKARAREN ERABILERA OBJEKTIBOA:

◦ **KANPOKO PROIEKZIOA.**

Orokorrean euskararen presentzia bermatua dago administrazioen kanpoko proiektzioan. Gabezia gehiena argitalpenetan aurkitzen da, argitaratzen denaren %25 a gazteleraz soilik egiten baita.

Nahiz eta euskararen presentzia kanpo proiektzioan nabaria izan, esan beharra dago produkzio hizkuntza, kasu gehienetan, gaztelania dela. Hortaz testu gehienak itzuliak dira, eta soilik %10-20-a sortzen da euskaraz. Horrek esan nahi du, nahiz eta euskararen presentzia kanpoko irudiari dagokionez bermaturik dagoen, lan egiteko hizkuntza gaztelania dela.

Euskarazko testu gehien sortzen dituzten administrazioak Gipuzkoako udaletxe eta mankomunitateak dira, hau da, euskarekiko egoera soziolinguistiko hobea dutenak.

Kanpokoak eta ofizialak diren harremanetan euskara batez ere idatziz erabiltzen da, batez ere herritarrei eta beste administrazioei zuzentzen direnetan. Hala ere, honek salbuespen bat du: barneko harreman ez ofizialetan euskararen ahozko erabilpen handiagoa egiten da. Era honetan, lankideen arteko harremanetan euskararen erabilera handiagoa da ahoz idatziz baino.

Euskararen ahozko erabilera %30-40 artean dago. Euskararen egoerarik onena udaletxe eta mankomunitateek dute, eta azken hauetan euskararen erabilera gaztelaniarena baino handiagoa izatera heltzen da, bai idatziz bai ahoz. Administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzen da idatziz ahoz baino.

◦ **ITZULPEN POLITIKA.**

Eusko Jaurlaritzak egindako galdetegiaren emaitzen arabera sortutako testuen %66-a itzultzen da.

Udaletxe bizkaitarrak dira haien testuak gehien itzultzen dituztenak (sortzen dituzten testuen %54a). Ehuneko hau baxuagoa da Gipuzkoan (%44a) eta Araban (%21a).

Populazio indizeari dagokionez, udaletxe handiek txikiek baino gehiago itzultzen dute (haiek sortzen baitituzte testu gehiago euskaraz).

Itzulpen gehienak gaztelaniatik euskarara egiten dira, hortaz testu gehienak gaztelaniaz sortzen dira, hori izan ohi da lan-hizkuntza, nahiz eta euskarazko testuak argitaratzen diren.

◦ **ERROTULUAK, TRESNERIA ETA PAPERGINTZA**

Errotuluak: gehienak elebidunak dira, euskararen agerpena bermatuta geratuz. Euskarazko errotuluak bakarrik agertzen diren kasuak oso gutxi dira (udaletxe eta mankomunitate batzuetan, batez ere Gipuzkoan). Kontu Publikoen Auzitegian %40-a baino gehiago soilik gaztelaniaz ageri da. Hala ere, gainontzeko administrazioan eredu elebiduna nagusitzen da.

Tresneria: Tresneriaz hitz egitean erreferentzia egiten diegu lan eremuan ditugun tresna edo gailuei: kafe makina, fotokopiagailuak, eta abar. Eremu honetan gaztelania aurreko eremuan baino gehiago nagusitzen da, eta oso gutxitan aurki ditzakegu bi hizkuntzak tresna horietan.

Kasu honetan ere Gipuzkoako zenbait udaletzek bakarrik dute tresneria soilik euskaraz, batez ere 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan.

Papergintza: Eremu honetan euskararen presentzia bermatuta dago, paper gehienak bi hizkuntzetan aurki baititzakegu. Aipagarria da Euskadiko Kontu Auzitegian, Datuen Babeserako Euskal Agentzian eta Arartekoan % 40-a eta % 60-a gaztelaniaz eskusiboki aurki dezakegula.

4. KANPOKO HIZKUNTZA ESKARIA.

Interesgarria da kanpoko hizkuntza eskaria aztertzea, izan ere horrek administrazioaren langileek erabiltzen duten eta erabiliko duten hizkuntza baldintzatu dezake.

Kontuan izanik Euskal Autonomia Erkidegoan 15 urte baino gehiagokoen %29,16-a euskal hiztunak direla (Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera), esan daiteke euskal hiztunen ehuneko altua zuzentzen dela euskaraz administrazioa. Herritarrek euskararen %26ko eskaria egiten duten.

Hau oso garrantzitsua iruditzen zait, izan ere ez badago demandarik ez da eskaintzarik egongo. Herritarrok erantzukizun handia dugu euskararen erabilera administrazioan zabal dadin. Ez da nahikoa administrazioko langileei hizkuntza maila zehatza eskatzearekin eta euskara erabili dezaten exijitzearekin; guk, herritarrok, euskara erabili behar dugu, eta administrazioan lan egiten dutenengana euskaraz zuzendu behar gara; horrela soilik lortuko baitugu hura hobetzea, eta euskara administrazio hizkuntzara egokitzen joatea. Horrela, agintariak euskararen erabilpenerako planak burutzera eta horien jarraipena egitera bultzatuko ditugu, eta euskaren normalizazioa lortzera hurbilduko gara.

BALORAZIOA OROKORRA:

- Ia administrazioen erdiak **euskararen erabilpenerako plan** bat du zehaztuta. Planik zehazturik ez dutenen artean askok (udaletxeen %45ak), era batera edo bestera, euskara sustatzeko neurriak hartu dituzte

Gehienek azken 5-10 urteotan zehaztu dituzte haien planak, eta nahiz eta lan asko egiteke dagoen garapena handia izan da.

- Administrazio publikoko **langileen euskararen ezagutza maila** altua da: ia %58ak hizkuntza eskakizunen bat du. Beraz emaitzak positiboak dira. Hala ere, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeak ez du hizkuntza horren erabilera bermatzen.

- **Agintari politikoaren euskararen ezagupena** bere inguruneari lotuta dagoela eta orokorrean ona dela egiaztatu da.
- Orokorrean euskararen presentzia bermatua dago **administrazioen kanpoko proiektioan**. Hala ere, lan egiteko hizkuntza gaztelania dela.
- **Itzulpen politika:** Testu gehienak gaztelaniaz sortzen dira.
- **Errotuluak eta papergintza:** gehienak elebidunak dira. **Tresneria:** oso gutxitan aurki ditzakegu bi hizkuntzak tresna horietan.
- **Kanpoko hizkuntza eskaria:** Esan daiteke euskal hiztunen ehuneko altua zuzentzen dela euskaraz administraziora.

Eusko Jaurlaritza oso baikor agertzen den arren, niri datuak ez zaizkit hainbesterako iruditzen. Asko dago egiteko, hala ere, euskararen normalkuntza lortzea nahiko urrun dagoen arren, guztion esfortzuz, hura erabiliz eta batez ere bere erabilera administrazioari exijituz lortu daiteke eta lortuko dugu.